



# Osasuna eta hizkuntza V: eskaintza aktiboa



**Ira. 15 - Ira. 16 2022**

**Kod. O20-22**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 15 - Ira. 16 2022

**Kokalekua**

Carlos Santamaría Zentroa

**Hizkuntzak**

Euskara Ingelesa

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
**BBVA**





## Azalpena

Orain arteko osasuna eta hizkuntza Uda Ikastaroetan hizkuntzak osasun zerbitzuetan duen garrantzia aztertu dugu, nazioarteko ereduetan duen egoera aztertuz, Euskal Herrian bizi dugun egoeraz hausnartuz, eta ikerketak duen garrantzia azpimarratuz. 2022ko edizioa eskaintza aktiboan kokatuko da.

Hizkuntza zerbitzuak osasun erakundeek erabiltzaileen eta profesionalen arteko hizkuntza mugak gainditzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak lirateke; izan giza-baliabideak zein teknikoak. Hizkuntza zerbitzuen eskaintza aktiboa hauxe litzateke: lehenetsitako hizkuntza erabiltzeko gonbidapena, ahozkoa zein idatzizkoa; beti ere, eskaera baino lehenago eta erabiltzaileak eskatzera behartu gabe. Eskaintza aktiboa erakunde mailako neurrien multzoa litzateke, hizkuntza zerbitzuei ikusgarritasuna, eskuragarritasuna eta irisgarritasuna berma diezazkiena, erantzunkizuna erakundeena izanik eta inola ere ez erabiltzaileena.

Uda Ikastaro honetan, Euskal Herrira egokituriko eskaintza aktiboaren definizio zabala landuko da, komunitatearen inplikazioa erdigunean jarritz. Bere oinarri teorikoa hizkuntza-justizia, gaitasunen eredua eta eragile aktiboak izango dira. Hau guztia kontuan hartuta Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat proposamen eta esku hartze aurkeztuko dira. Gaiak aurkezteko orduan eskaintzaren mailak jarraituko dira: muturreko egoerak edo eskaintzarik eza, erabiltzaileen beharren identifikazioaren egoera, zerbitzuen eskaintzan oinarritutako egoera, eskaintza aktiboaren neurketa eta ebaluazioa. Hizkuntza-justizia, etika eta gaitasunen eredua landuko dira baita ere.

## Helburuak

Eskaintza aktiboaren eredua lantzea.

Eskaintza aktiboaren definizio ezberdinak testuinguru ezberdinetan azaldu eta ikasi.

Eskaintza aktiboaren oinarri teorikoak azaldu eta ikasi: hizkuntza, justizia eta gaitasunen eredua.

Eskaintza aktiboaren ezarpena eta ebaluazioa kokapen eta maila ezberdinetan nola egin daitekeen aurkeztea.

Eskaintza aktiboaren neurtzeko metodologiaren hausnarketa: ezagutza, jarrera eta gaitasuna neurtu.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak





## Programa

### 2022-09-15

14:45 - 15:00	Harrera
15:00 - 15:15	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: <b>Iraitz Lazkano Garitaonandia</b>   UEMA - Zuzendaria
15:15 - 15:30	“Erregistroa”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Jon Zarate Sesma</b>   EHU - Irakasle-ikertzailea <b>Aitor Montes Lasarte</b>   Osakidetza - Medikua eta ikertzailea
15:30 - 16:15	“Ethics of language policy in health care” <b>Yael Peled</b>   Montrealko Unibertsitatea - Irakasle-ikertzailea
16:15 - 17:00	“Kudeaketa linguistiko eta kulturala pazientean zentratutako osasun arretan” <b>Jon Zarate Sesma</b>   EHU - Irakasle-ikertzailea
17:00 - 17:45	Atsedena
17:45 - 18:30	“Eskaintzarik eza edo muturreko egoerak: tipularen seaska kanta” <b>Lander Garro</b>   Idazlea eta zinemagilea - Idazlea eta zinemagilea
18:30 - 19:15	“Identification of needs from the perspective of users” <b>Alwena Morgan</b>   Swansea University - Irakasle-ikertzailea ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> ) <b>Maisie Edwards</b>   Swansea University ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )

### 2022-09-16

09:30 - 10:15	“Linguistic needs in vulnerable situations” <b>Fredica Nyqvist</b>   Åbo Akademi University - Irakasle-ikertzailea ( <b>Zoom bidez parte hartuko du</b> )
10:15 - 11:00	“Etorkinei zuzendutako harrera protokoloak” <b>Urko Ikardo Enparan</b>   Bortziritako Euskara Zerbitzua - Teknikaria
11:00 - 11:45	Atsedena



11:45 - 12:30

“Hizkuntzen kudeaketa kabiako adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan“

**Arantza Lekuona** | Kabia - Gerentea

---

12:30 - 13:15

“Eskaintza aktiboaren neurketa eta ebaluazioa“

**Aitor Montes Lasarte** | Osakidetza - Medikua

---

## Zuzendariak



### Jon Zarate Sesma

UPV/EHU

---

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea. Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.



### Aitor Montes Lasarte

Osakidetza

---

Basaurin jaioa (1972), Euskal Herrian. Medikuntzan lizentziaduna UPV/EHU, 1999an. Familia medikuntzako espezialitatea burutu zuen 2004an, Galdakao-Usansoloko ospitalean (Euskal Herria). Gaur egun familia medikua da Aramaion, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. OEEko (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) kidea. Euskal prentsan iritzi artikulua idazten ditu noizean behin. Hizkuntza eta osasungintzarekin zerikusia duten hamar bat argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan, batik bat Osagaiz, BAT soziolinguistika aldizkarian eta International Journal of Integrated Care aldizkarian. Eskalatzailea, zenbait bide berri zabaldu eta argitaratu ditu prentsa espezializatuan.

## Irakasleak



**Maisie Edwards**

---



**Lander Garro**

---

Lander Garro (Errenteria, Gipuzkoa, 1975eko azaroaren 25a) euskal idazle, argazkilaria eta dokumentalgilea da. Sare Herritarra elkarteak, Gasteibeltza iparraldeko produktorearekin batera, Lander Garrok zuzendutako “Tipula sehaska kanta” film-Dokumentala ekoiztu du, espetxea eta eritasunaren gordina nola bizitzen den azaldu asmo duen lana. Lan hori dela eta gonbidatu dugu uda ikastarora.



**Urko Ikardo Enparan**

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

---

Soziologian masterra ULBn. Soziologian lizentziatua EHUUn. Hiznet graduondokoa EHUUn. Euskara ardatz izanen duen jendarte kohesioa helburu, etorri berriei harrera eta kultur aniztasuna Bortzirietan. Patri Arburua Etxeberrarekin batera. Bat Soziolinguistika Aldizkaria. 2021. Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean. Bat Soziolinguistika Aldizkaria. 2017.



### **Arantza Lekuona**

---

Nire ibilbide profesionalean euskararen erabilera eta kudeaketaren inguruko interesa izan dut, eta horren ondorioz, ahal izan dudan neurrian, Euskara Batzordeetan parte hartu dut eta hainbat ekintzen sustapenetan. KABIAREN kasuan, erakundea 2015ean abian jarri zenetik bertako gerentea izan naiz, eta hasieratik bultzatu dut euskara kudeaketan txertatua egon dadin. Aurretik izan dudan esperientzia guztiak lagundu dit helburu hori bideratzen.



### **Alwena Morgan**

---

Dr Alwena Morgan is Welsh speaking lecturer in Biomedicine that has been successful in establishing Welsh provision for the undergraduate degree schemes at the Medical School, ensuring that they are eligible for Welsh medium scholarships and bursaries. She has carried out numerous Outreach activities for bilingual school pupils in years 12 and 13 and has been nominated three times for the SUMS Outreach award, which she has won once. She has close links with the Coleg Cymraeg Cenedlaethol.



### **Fredica Nyqvist**

---

Senior Lecturer, Faculty of Education and Welfare Studies, Social Sciences, Minority Research in Åbo Akademi University. Addressing access to health care and social services for language minorities: best practices and latest evidence.



## **Yael Peled**

---

A researcher in the complex and fascinating terrain that juxtaposes political science, philosophy and linguistics. Doctor of Philosophy, Politics and International Relations (political theory), Nuffield College, Oxford University (2012) Thesis title: Linguistic Justice and Philosophical Empowerment: Two Justifications for a Plurilingual Theory of Democracy. Global Engagement Research Initiation: "The Ethics of Language Policy and Planning: A New Normative Approach to Contemporary Global Challenges", Queen Mary University of London (2020).





## Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2022-09-15 ARTE</b>
Orokorra	80,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	68,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	56,00 EUR
<a href="#">Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa</a>	20,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	68,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	68,00 EUR
<a href="#">OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK</a>	0 EUR



## **Kokalekua**

### **Carlos Santamaría Zentroa**

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa